

"On- line jokoak, kirol apustuak, sare sozialak... menpekotasuna edo kondairak?" ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak iraila eta urria artean formakuntza planeko beste ikastaro bat antolatu du

'**On- line jokoak, kirol apustuak, sare sozialak... menpekotasuna edo kondairak?**' ikastaroa antolatu du Gazteen Euskal Behatokiak iraila eta urrian zehar. Formazio honen helburu nagusia da, gizarte-eragileei informazioa eta prestakuntza ematea ausazko jokoekin (batez ere kirol-apustuekin eta on-line jokoekin) eta sare sozialekin lotutako arriskuei buruz.

Ikastaroa **Estibaliz Ansotegi Guruziagak** eman du, Psikologiako lizentziaduna Ortzadarren osasun- eta adikzio-arloko prebentzioari buruzko programaren koordinatzailea.

10 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 80, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 10 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Azkenik, % 10ak bestelako soslai profesionalak zituzten.

Ikastaroak 12 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta